



## **DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016**

### **IVAP**

1. EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko bekak... 2
2. Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko ..... 3
3. 2016-2017ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia ..... 4
4. Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako "Jesús María Leizaola"-2016 saria ..... 6
5. Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak ..... 8
6. Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak .. 9



## 1.- Izenburua

**EVETUK hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko bekak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko ekainaren 15ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, «Hirigintzako XLII. (42) Ikastaroa» (Bilbo, 2016-2017) egiteko deialdia zabaltzen duena. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendeko Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU) antolatu du ikastaroa, eta, ikastaroaren deialdiaz gain, ikastaroan parte hartzeko bost matrikula-bekatarako deialdia ere egiten da honen bidez. (EHAA 120 zk., 2016ko ekainaren 24a).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen ditu Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroak. Urtero bezala, 2016-2017ko edizioan ere beka-deialdia egin da Hirigintzako XLII. (42) Ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko bost laguni. Matrikula-beka bakoitza 2.780,00 eurokoa da (ikastaro osoa ordaintzeko besteko kopurua).

Xedea da baliabide ekonomiko nahikorik ez baina emaitza akademiko onak dituzten graduatu eta lizentziadunek ikastaroan parte hartuko dutela bermatzea.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

8. helburua. Funtzionarioen, profesionalen eta graduatuondokoen prestakuntza, Hirigintza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen arloetan. Ekintza: Prestakuntza-ekintzak antolatzea. 3. Adierazlea: Ikastaro modularretarako matrikula-beken kopurua. Onartutako magnitudea: 5 beka-matrikula. Aurrekontu-zuzkidura 13.900,00 €.

2016-2017ko Ikastaroan bi eskabide baztertu ziren eta 3 beka-matrikula esleitu zaie Bizkaiko hiru biztanleei, 8.340,00 € ordainduz (EBAZPENA, 2016ko irailaren 20koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena. Honen bidez, 2016-2017rako antolatu den Hirigintzako XLII. (42) ikastaroa egiteko matrikula-bekak esleitzen dira. Bilbon egingo da, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendean dagoen LHIEE-Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU) antolatuta. (EHAA 190 zk. 2016ko urriaren 5).



## 1.- Izenburua

**Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko maiatzaren 25ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako Hirigintzako XLI. (41) Ikastaroaren barruan erakundeetan eta enpresetan egin beharreko praktika-aldia arautzen duena. (2016ko ekainaren 13ko EHAAn argitaratu da, 111. zk.an).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen du Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroa, eta 2015-2016 ikasturtean erakundeetan eta/edo enpresetan 300 ordu inguruko praktika-aldia antolatu zuen hirigintza-arloan hamabi hilabeteko eskarmentua baino gutxiago zutenentzat. Hasieran aurreikusitako ikasle kopurua bederatzi ziren. Horietako bakoitzari, gehienez, 2.111,11 euro eman zaizkio eta, guztira, 21.000,00 euroko aurrekontu-zuzkidura erabili da.

Hona praktika-aldiaren helburu nagusia: Hirigintzari buruzko XLI. (41) ikastaroa (Bilbo, 2015-2016) egin duten ikasleek hirigintzaz ikasitakoa erakunde publikoetan eta/edo enpresetan aplikatzea, han lau hilabeteko praktikak eginez, gutxi gorabehera.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Harreman estuagoa lortzen da hirigintza- lurralde- eta ingurumen-arloetan langile espezializatuen beharra izan dezaketen zentro eta profesionalekin, baita erakunde publiko eta pribatuekin ere.

Ikasleek jarduera erdi-profesionala garatzen dute, eta aukera izaten dute erakunde publikoetan "in situ" ezagutzeko zertan den eta zelan kudeatzen den hirigintza. Horretarako, aholkularitza-lanetan ibiltzen dira eta proiektu profesional batean parte hartzen dute hiru bat hilabetez (2016ko urritik abendura arte). Horrek guztiak ondorio garrantzitsuak dauzka Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroko ikasleentzat, praktika-aldia egin aurretik ez baitute eskarmenturik hirigintza-kontuetan.

Emaitzak onak izan dira. Izan ere, diruz lagundutako praktikak 9 ikaslek egingo zituztela aurreikusita bazegoen ere, azkenean, 10 ikaslek egin dituzte (arabatar bat, 6 bizkaitar eta 3 gipuzkoar). Aurrekontu-zuzkidura 21.000,00 eurokoa izan da, eta emandako diru-laguntza 20.242,60 eurokoa izan da.



## 1.- Izenburua

**2016-2017ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 22koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2016-2017ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzearren bi diru-laguntza emateko merezimendu-lehiaketarako deialdia egiten duena. (2016ko maiatzaren 6ko EHAA).

## 3.- Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Diru-laguntza hauen helburua da, Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai jakin batzuei buruzko ikerlanak egitea eta Euskadiko herri-administrazioen eraginkortasuna areagotzea. Ikerkuntza programa honek urtebeteko iraupena du.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016-2017ko deialdian esleitutako proiektuen araberako ikerlanak aurkeztu behar ziren 2017an. Honako hau izan esleitutako proiektua (beste proiektuek ez zuten gutxieneko puntuazioa lortu): *“La administración pública vasca y la recuperación de la industria: los retos para las estrategias de reindustrialización inteligentes”*. (Javier Bilbao Ubillos, Vicente Camino Beldarrain y Gurutze Intxaurburu).

Ikerlana zegokion epean aurkeztua izan zen eta epaimahaiak aurkeztutako ikerlanaren inguruan bere azterketa egin zuen.

Egindako azterketaren ondorioz, ikerlanaren balorazioa 6,00 puntukoa izan zen; beraz, lehenengo ordainketa (3.500 euro) mantendu zuen baina bigarrena ez zuen jaso eta lana ez zen argitaratu, baina IVAPeko liburutegian sartu zen.

Aurrekontuaren adierazleei dagokienez, deialdi hauek 1216 programan (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Administrazio publikoetako langileak aukeratu eta prestatu) sartuta daude eta programa horretako adierazleek deialdiari erreferentzia egiten diote. Hori 2016an gertatu zen eta urte horretan jasotako helburuak bete ziren.

IVAPeko kalitatea kudeatzeko sistemaren helburu eta adierazleei dagokienez, honako datu horiek dauzkagu 2016-2017ko programa honetan:



ADIERAZLEAREN IZENBURUA	HELBURUAK	ADIERAZLEAK
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan argitaratu diren ikerlanen ehunekoa	%100	%0
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan aurkeztutako eskaeren ratioa	3	5,50
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan diru-laguntzei uko egingo ehunekoa	%0	%0
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan liburutegian gordetako ikerlanen ehunekoa		%100



## 1.- Izenburua

**Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako "Jesús María Leizaola"-2016 saria**

## 2.- Araua

2016ko martxoaren 17ko EBAZPENA, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako «Jesús María Leizaola» 2016 sarirako deia egiten duena (2016ko maiatzaren 2ko EHAA).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Gure autonomia-sistemak lege eta ekonomiaren arloetan dituen berezitasunei buruzko azterlanak sustatu eta zabaltzea da "Jesús María Leizaola" 2016 sariaren eginkizuna.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Sariak gure autonomia-sistemak lege eta ekonomiaren arloetan dituen berezitasunei buruzko azterlanak hedatzeko aukera ematen du. Halaber, ikerkuntzaren aldeko interesa sustatzeko egokia da aipatutako arlo horiek sakontzeko beharrianari erantzuten diolako eta etorkizuneko euskal autonomia garatzeko aproposa izan daitekeelako.

Aurtengo deialdian bi ikerlanek jaso dute saria "ex aequo" (biak argitaratzeko bidean daude). Bestalde, epaimahaikideek, aho batez, erabaki zuten beste hiru lan batzuen argitaratzea, uste izan zutelako kalitate handikoak zirela (horietako bi argitaratzeko bidean ere badaude).

Hona hemen egile eta ikerlan sarituak:

EGILEAK	IKERLANAK
Amaia Urkiola Fernández	"La redistribución entre Territorios Históricos dentro del sector público vasco"
César Gallastegi Arantzabal	"Euskera y régimen foral vasco: lengua, comunicación, poder y derecho en Bizkaia, Gipuzkoa y Álava (1500-1876)"

Aurrekontuaren adierazleei dagokienez, deialdi hauek 1216 programan (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Administrazio publikoetako langileak aukeratu eta prestatu) sartuta daude eta programa horretako adierazleek deialdiari erreferentzia egiten diote. Helburua zen sariaren deialdi bat egitea eta horrela egin da (helburua bete da).



IVAPeko kudeaketa sistemari dagokionez, honako helburu eta adierazleak dauzkagu 2016ko programa honetan:

Adierazlea	Helburua	Adierazlea
Leizaola saria deialdira aurkeztutako hautagaien kopurua	4	11
Leizaola saria ematea	1	2
EAEtik eta Nafarroatik kanpo bizi diren Leizaola sariaren hautagaiak	1	0
Leizaola deialdian aurkeztutako lanak, saririk gabekoak baina argitaratuak	1	2
Leizaola saria deialdian ezarritakoarekin bat datozen aurkezturiko lanak	%90	%90



## 1.- Izenburua

**Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Udal-administrazioak diruz laguntzea, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egonda eta partzialki edo guztiz liberatuta egonda, euren lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna eskuratu arte euskara-ikastaroetara joaten diren langileak ordezkatzeko kostua finantzatuz.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko urtarrila-ekaina epealdia.

Ordezkatutako ikasle kopurua: 4

Erakundeak: 3

Liberazio mota: osoa.

Ordezkapenen kostua: 34.536,65 euro.

2016ko uztaila-abendua epealdia.

Ordezkatutako ikasle kopurua: 5

Erakundeak: 3

Liberazio mota: osoa.

Ordezkapenen kostua: 27.520,35 euro.





## 1.- Izenburua

**Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko maiatzaren 11koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazio, foru-administrazio eta Euskal Herriko Unibertsitateko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2016ko maiatzaren 11koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza Programa honen helburua da ahal den erakunde publiko guztietan prestakuntza-plan edo -programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurkeztutako prestakuntza-plan edo -programek analisi edo diagnostiko batean oinarritu beharko dira.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- |  |                                  |
|--|----------------------------------|
| 1. adierazlea: prestakuntza-planen kopurua:                      | 43 (47 aurreikusitakoak)         |
| 2. adierazlea: parte-hartzaileen kopurua:                        | 76.018 (41.000 aurreikusitakoak) |
| 3. adierazlea: programan parte hartzen duten erakundeen kopurua: | 180 (155 aurreikusitakoak)       |

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen prestakuntza etengabeko garapenean eta egokitzapenean dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuk eskaintzeko ezinbesteko elementutzat hartzeak, eta, bestetik, EAeko administrazio guztiek aurrean dituzten aurrekontu-zailtasunak aintzat hartzeak, horiexek bultzatzen gaituzte Diru-laguntza Programa hau abian jartzera.